


Itsasontzi hondoratua

Nola flotatzen du itsasontzi batek?

Materialak

- Neurri bereko 2 aluminio-paper
- Iturriko ura
- Plastikozko 2 katilu



Zer egin

1. Egin aluminio-paper batez itsasontzi bat, alboak dituen.
2. Egin pilota bat beste paperaz.
3. Bete plastikozko katiluak iturriko urez, hiru laurden inguru.
4. Jarri aluminiozko pieza bakoitza katilu batean. Zeinek flotatu du? Zergatik?

Zer gertatzen da?

Itsasontzi-formako aluminio-paperak flotatu du, eta pilota-formakoa hondoratu egin da. Objektuak flotatzeko orduan, dentsitatea eta forma garrantzitsuak dira. Objektu batek flotatu egingo du baldin eta desplazatzen (mugitzen) duen ur-kantitateak objektuaren pisu bera badu. Objektua hondoratu egingo da desplazatzen duen ur-kantitateak objektuak baino pisu txikiagoa badu. Objektuaren formak desplazatzen duen ur-kantitateari eragiten dio. Objektu batek bere bolumenarekin alderatuta, edo betetzen duen espazioarekin alderatuta, daukan pisuaren neurria da dentsitatea. Objektu batek, beste batek baino dentsitate handiagoa badu bolumen bera izanik, pisu gehiago izango du. Urak baino dentsitate txikiagoa duten objektuek flotatu egingo dute.

